

1.-EDESTIA: NONDIK NORA: ABRAAM

Edesti edo istoriari buruz idaz-lan batzuk egitea otu jat, baiña lenago argitu daigun nondik nora begiratzeko dogun edestia.

Ez edesti osoa. Asieratik, erriak sortu ziranetik asiko gara, K.a.'ko 2000n. urte-ingurutik. Or aurkitzen dogu irudi aundi eta eder bat: Abraam.

Ez dogu begiratzeko edesti oso lurraren zabaleran be: Txina'n erri zarra daukagu, India'n "Veda" deritxen liburu zarrak bide dirala, Ameriketako inkak eta antzeko aginterriak aztertu bearko geunke, eta toki guztietan erriak eta erriak.

Guk Europa'ren edestia artuko dogu kontuan eta, gainera, kristiñauen erlejiñoa oiñarri dala eta ikuspegi orretatik aztertuko doguz gure inguru onetan, Euskalerrian, agertzen diran jazokizunak.

Baiña Abraam'egandik asi baiño lenago, bagiratu dagiogun, labur, gure jakintzaren oiñarrian dagoan Grezia'ko jakituria. Egia da, euskaldunen jakintza zarragoa dala eta onek Grezia'ren ikutu gitxi daukala, baiña zerbait jakitea ondo etorriko jaku, gure ingurua aztertzeke.

Sokrates dogu giltza. Onen aurretik presokratikoak daukaguz, batez be Pitagoras, eta onen inguruan Platon eta Aristoteles filosofi guztiaren oiñarri lez.

Platon'en bidea ez jaku atsegin, zentzunetatik gugana sartzen ez diran ezaupide batzuk jarten dauzako. Atsegiñago jaku Aristoteles'en bidea, ezaupide guztiak zentzunetatik eta adimenaren bidez jatorkuzako.

Filosofi bi orreik euki bear doguz argi, edestia ulertzeke, eta, guzaldien joanean, era batera edo bestera, orreik aurkituko doguz.

Erriak sortu ziranean, K.a.'tik bi milla urte-inguruan, Ur (izen euskalduna?) eritxon Kaldea'ko erritxu

baten Abraam bizi zan: Gizon zintzoa, jainko bakarra gurtzen ebana... Onek bere inguruan Kaldea'ko erritarak okerreko bidetik joiazela ikusi eban eta bere barruan Jainko bakarraren deia entzun eban: Urten egizu zeure sendi eta erritik ez zoaz neuk esango dauzudan lurralde batera.

Eta Abraam joan egin zan.

Orra or erri ospetsu biren sorkuntza: Israel'darrak Sara bere emaztearen aldetik eta Ismael'darrak Agar bere mirabearen aldetik. Guztiak Jainko bakarraren gurtzailleak

Joan zan Abraam Jainkoak izendatu eutson Kanaam lurraldera. Antxe bizi izan zan eta antxe il be. Eta Magpelak eritxon illobian lurperatu eben. Illobi ori gaur agiri diran triku-arri (dolmen) eta komletx'en sasoikoa da, artzaiñen sasoikoa, eta triku-arria edo dolmena izango zan.

Kristiñauak garanok be, Abraam'en ondorengoak gara, ez odoletiko seme-alabak, agintzarien ondorengoan baiño.

Eta iru erriak (judatarrena, ismaeldarrena eta kristiñauena) alkartu ezker, ia mundurik erdia gara. Zela-ko aukerea geure artean ondo konpondu ezker, munduko bakea eta aurrerapena lortzeko. Ortik doa kulturaren edo jakintzen alkar-izketaren bidea.

Baiña ez da gauza erreza. Errez apurtzen da bakebide ori. Oraintsu naikoa izan da Mahoma'ren irudiak agertzea, iñon diran asarreak sortzeko.

Dana dala, bide orretatik joan II Joan Paul Aita Santuaren asmoa Sinai mendian iru erri orreik batu ebazanean.

Olazar'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eigu!

Ebaki orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!